

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEENTZAKO ARRETA UPV/EHUko SARRERA PROBETAN

www.ehu.eus

SARRERA

Dokumentu honetan Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) sarrera probetako egokitzapenen ezarpenak jasotzen dira modu laburrean, epaimahaietarako zenbait aholku eta jardunbide orokor jasotzen direlarik.

Unibertsitatera sartzeko ebaluazio (USE) probetan egokitzapenak izatea ikasleak indarreko araudiaren babesean daukan eskubidea da, araudian azertu daitekeen moduan, baina araudiaz gain, UPV/EHUK konpromiso sendoa dauka inklusioaren alde.

Sarrera probetako egokitzapen eskari guztiak UPV/EHUko Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak kudeatzen ditu, eta eskariak azertu ondoren egoki direnak onartu egiten ditu zehaztutako prozedurari jarraituz.

Dokumentu honen helburua USE-ko epaimahaiei desgaitasunak edota hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako probak egokitzeko argibideak ematea da.

Era berean, epaimahaikideei laguntzeko egokitzapen horien ezarpenari buruz eta premia bereziak dituzten ikasleek azterketak egiten dituzten bitartean eman beharreko jarraibideak eskaintzen dira.

NOLA EZARRI EGOKITZAPENAK

UPV/EHUko Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak zenbait jarraibide orokor zehazten ditu desgaitasunak dituzten ikasleen egokitzapen eskariei erantzuteko.

Inklusiorako jarraibideak:

1. – Desgaitasuna ez da beti ikusgarria edo nabarmena. Beharrezkoa da egokitzapena eskatu duen ikaslea identifikatzea izen-abizenekin.
2. – Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen ezaugarriak anitzak dira, eta egokitzapenak askotarikoak izan daitezke, eta, beraz, kasuan kasu aztertu behar dira.
3. – Gelan dauden epaimahaikideek egokitzapenen berri izan behar dute eta jakin kasu bakoitzean nola jardun.
4. – Garrantzitsua da ikasleari zuhur jakinaraztea epaimahaiak badaukala bere berri eta egokitzapenak egingo zaizkiola.
5. – Gainontzeko ikasleen aurrean ez da izen-abizenik esan behar, eta ikasgelako gainontzekoek ez dute jakin behar premia bereziak dituen ikasleari egingo zaizkion egokitzapenak: zuhurtzia eta isilpekotasuna ezinbestekoak dira oinarrizko jardunbidean.
6. – Zerbitzuak epaimahaiarekin batera kudeatzen ditu egokitzapenak, eta gorabeherarik egonez gero, epaimahaiburuarekin edo idazkariarekin hitz egin behar da.



EGOKITZAPENAK

1.- Denbora luzatzea: gehienez ere 15 minutu luzatuko da azterketa bakoitza. Aparteko egoerarik egonez gero, berariaz adierazi beharko da.

2.- Ordenagailua erabiltzea: azterketa aurretik epaimahaiarekin batera adosten da eta Zerbitzuak jartzen du ordenagailua. Ordenagailuak ez du Interneterako konexiorik izango eta zuzentzaile ortografikoa aktibatuta izango du edo ez, egoeraren arabera. Azken lerroan jarriko da ikaslea, beste inork ikus ez dezan pantailan agertzen dena. Ezinbestekoa da alboan entxufea izatea batera kargatuta izateko. Azterketa hauek inprimatu egin behar dira zuzenketa egiteko.

3.- Azterketa brailen ikasle itsuentzat: azterketak brailen idazteko, lankidetzan aritzen gara IBT-arekin (Ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegia), eta beraiek uzten digute behar den ekipamendua. Aparteko gelan egingo da azterketa, eta gelan ordenagailua, braille linea, Jaws eta behar den guztia egongo da, aldeaz aurretik epaimahaiarekin adostuta. Azterketa hauek inprimatu egin behar dira zuzenketa egiteko.

4.- Testu irisgarriak: Uniberstitate Sarbideko Zuzendaritzak egokitutako azterketak epaimahaiari bidaliko dizkio, testu tamaina, formatu, lerroarte eta kontraste espezifikoeekin baita ere irudi handiagoekin beharrezkoa denean.

5.- Baliabide teknikoak: lupa, orri lerroduna, atrila eta Zerbitzuak adierazitako gainontzeko baliabide bereziak erabili ahal izango dituzte.

6.- Aparteko gela: epaimahaiarekin adostuko da eta beti egon beharko da norbait zaintzen.

7.- Azterketa transkribatzea: ikasle batzuek laguntza behar izaten dute azterketa idazteko. Aparteko gelan egin behar da eta Zerbitzua arduratzen da laguntzailea jartzeaz.

8.- Eserlekua erreserbatzea: ikaslea gelan sartzean, bere eserlekua zein den jakinarazi behar zaio. Lehen ilaran eskatzen denean ikusmen edo entzumen urritasuna duelako izan daiteke. Beste kasu batzuetan, garrantzitsua da aukeratutako lekuan distrakzioak ekiditea (elkarrizketak, pertsonen mugimendua, atetik urrun...).

9.- Altzari egokituak: mahai eta aulki egokituak, edota aulki altuak aldeaz aurretik prest egongo dira gelan.

EGOKITZAPENAK

10. – Hasierako irakurketa: jarraibideak bereziak dira kasuan-kasuan.

- Ikasleei azterketa irakurri, galderak ondo irakurri dituztela ziurtatzeko. Neurri hau beharrezkoa da dislexia duten ikasleen kasuan, hizki, silaba edo hitzen ordenaren nahastea saihesteko.
- Ikasleari berari berriz eman jarraibideak eta argi utzi zenbat galdera dituen azterketak.

11. – Bukaerako irakurketa: jarraibideak bereziak dira kasuan-kasuan.

- Azterketa irakurri egiaztatzeko letra ulergarria dela. Zerbait ulertzen ez bada, ikasleari adierazi zuzentzeko, beti ere azterketaren denboraren barruan.
- Azterketa irakurri egiaztatzeko idazkera ulergarria dela. Helburua ez da edukia zuzentzea, ezpada egiaztatzea ondo idatzia dagoela eta ez dagoela akatsik esaldiko osagaiak lekuz aldatuta daudelako. Zerbait zuzendu behar izanez gero, ikasleari adierazi, baina, beti ere, azterketaren denboraren barruan.
- Azterketa gainbegiratu eta egiaztatu ez duela galderarik utzi erantzuteke.

12. – Dislexia duten ikasleentzako zuzentzeko jarraibideak: Zerbitzuak epaimahaiburuari adieraziko dizkio zuzenketarako jarraibideak eta epaimahaiburuak edo idazkariak zuzentzaileei jakinaraziko dizkie zein azterketarako ezarri behar diren.

13. – Ikasle gorren arretarako jarraibideak: ezinbestekoa da ikasleari berari jarraibideak berresteak azterketa hasi aurretik eta azterketaren zehar. Zerbitzuak epaimahaiburuari adieraziko dizkio zuzenketarako jarraibideak eta epaimahaiburuak edo idazkariak zuzentzaileei jakinaraziko dizkie zein azterketarako ezarri behar diren.

14. – Zeinu hizkuntzako interpretea: zeinu hizkuntza erabiltzaile diren ikasle gorrek informazioa eta komunikazioa bermatzeko eta gelan interpretea izango dutenak eserleku bat izango dute ikaslearen alboan egoteko. Zerbitzua arduratzen da baliabide hau kudeatzeaz.

15. – Hezkuntzarako Laguntzaile Espezialista: motore urritasuna eta menpekotasuna duen ikasleak proba hauetan zehar baliabide hau izango du zaintza, transkripzioa, komunerako laguntza eta bestelakoetan. Zerbitzua arduratzen da baliabide hau kudeatzeaz.

LEGEDIA

Apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoa, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldarazten duena.

Disposición adicional vigésima cuarta

2. Los estudiantes y los demás miembros con discapacidad de la comunidad universitaria no podrán ser discriminados por razón de su discapacidad ni directa ni indirectamente en el acceso, el ingreso, la permanencia y el ejercicio de los títulos académicos y de otra clase que tengan reconocidos.

Abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretua, Unibertsitateko Ikasleen Estatutua onartzen duena.

Art. 15. Acceso y admisión de estudiantes con discapacidad

1. Los procedimientos de acceso y admisión, dentro de las normas establecidas por el Gobierno, las Comunidades Autónomas y las universidades, se adaptarán a las necesidades específicas de las personas con discapacidad, con el fin de garantizar la igualdad de oportunidades y la plena integración en la universidad.

Ekainaren 6ko 412/2014 Errege Dekretua, graduako unibertsitate ikasketa ofizialetan ikasleak onartzeko prozeduren oinarritzko arautegia ezartzen duena.

Art. 21. Personas que presentan algún tipo de discapacidad

1. Las comisiones organizadoras de las pruebas de acceso determinarán las medidas oportunas que garanticen que los estudiantes que presenten algún tipo de discapacidad puedan realizar la prueba en las debidas condiciones de igualdad. En la convocatoria se indicará expresamente esta posibilidad.

2. Estas medidas podrán consistir en la adaptación de los tiempos, la elaboración de modelos especiales de examen y la puesta a disposición del estudiante de los medios materiales y humanos, de las asistencias y apoyos y de las ayudas técnicas que precise para la realización de la prueba de acceso, así como en la garantía de accesibilidad de la información y la comunicación de los procesos y la del recinto o espacio físico donde ésta se desarrolle.

3. Los tribunales calificadoros podrán requerir informes y colaboración de los órganos técnicos competentes de las Administraciones educativas, así como de los centros donde hayan cursado estudios los estudiantes con discapacidad, que deberán informar de las adaptaciones curriculares realizadas.

LEGEDIA

17/2011 Dekretua, Otsailaren 15ekoa, zeinaren bidez onartu ziren Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuak.

V. kapitulua: premia bereziak dauzkaten pertsonak

68.2 artikulua. Ezintasunak dauzkaten ikasleak eta unibertsitateko gainerako kideak ezin izango dira izan diskriminatuak beren ezintasunagatik, ez zuzenean ez zeharka, unibertsitatera sartzeko prozesuan, bertan ari direnean, eta titulu akademikoak edo onartuta dauzkaten bestelakoak baliatzean.

Erabakia, 2015eko apirilaren 30ekoa, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluarena, onartzeko hezkuntza premia bereziak dauzkaten ikasleei aukera berdintasuna bermatzeko arautegia.

3. art. Hezkuntza premia bereziak dauzkaten ikasleen eskubideak

3.8. Ikastegiek eta sailek beharrezkoak izan daitezkeen egokitzapenak egitea ebaluazio probetan, metodologiari, denborari eta espazioari dagozkienak, bai eta UPV/EHUrako sartzeko probetan ere.